

UNITATE DIDAKTIKOA




- Zer dira Eskubideak?
- Zer da Gatazka?
- Zer da Askatasuna?
- Zer dira Emozioak?
- Zer da Komunikazioa?
- Ekinbide artistikoak.
- Lankidetzan aritzeko Jolasak.
- "Etorri etxera" abestiaren letra.
- Bibliografia.

EGITASMOAREN HELBURUEN ESKEMA:

Arazo bat sortzen denean paraleloki sentimenduak sortzen dira. Kasu honetan arazoa bikoitza da, hau da, haurren bi eskubideen urraketa: gurasoen afektibitatea jasotzearena eta gurasoek hezita ez izatearena; eta bestetik espetxea bera da, espetxearen presentzia, definizioz arazo bat baita.

Horren aurrean sentimenduak sortzen dira eta sentimendu horien ondorioz emozioak agertzen dira eta emozio horien kudeaketa egin behar da. Horren aurrean zer da egin behar duguna? Irtenbide bat bilatu, baina irtenbidea bilatzeko hiru pausu daude: lehenik arazoa zabaldu, hau da, sozializatu behar da; bigarrenik jendea arazoaz jabetu behar da, nolabaiteko enpatia eta elkartasuna adieraziz; eta hirugarrenik, horren aurrean ekinbide aktiboak eragin.



ZER DIRA ESKUBIDEAK?

- Esanahia: Hiztegia begiratu.
- Giza eskubideak?
- Haurren eskubideak?
- Zure inguruan zein eskubide uste duzu ez dela betetzen? Adibide bat jarri.
- Aukeratu eskubide bat eta azaldu zure herrian zelan betetzen den.



ZER DA GATAZKA?

Helburuak:

- Gatazka bat zer den argi eta garbi ulertzera iristea.
- Gatazkak pertsonen arteko harremanaren barruko alderdi bat dela ulertzea.

Orriaren alde batean haien ustez “arazo bat” dena marrazteko eskatuko zaie.

Horren ondoren, ikasleek borobil handi batean eserita, beren marrazkia erakutsiko diote taldeari, eta aldi berean, haien ustez zergatik den arazo bat azalduko dute.

Marraztu dituzten egoeren zerrenda egin dezakete arbelean, taldean nagusi den gatazkaren ideia zein den erabakitzeko (borroketan amaitzen diren egoera negatiboak izan ohi dira).

Gatazka Behatzea:

Kalean, etxean edo Ikastetxean ikusi duten gatazkaren bat aztertzeko eskatuko zaie ikasleei, eta honako galdera hauei erantzuteko:

- Nork hartu du parte gatazkan?
- Zer gertatu da?
- Noiz?
- Non?
- Zer ikusi da?
- Nola konpondu da?
- Zure ustez, hori al zen konponbide egokia?



Ondoren, ikasleak ikusi duenaren marrazkia egingo du: Zer nabaritu du gatazka hori begira zegoela?

ZER DA ASKATASUNA?

Helburua:

- Askatasuna hitzaren esanahiari buruzko gogoeta egitea.

Bi zati ditu: - Haientzat askatasun hitzak duen esanahiari buruzko eztabaida sortu gelan
- Gogoetaren ondoren sortu diren iritziak marrazki batean azaldu ditzatela.

Askatasunaren GOGOeta:

Helburuak:

- Norberaren eta taldearen askatasunak zer zentzu duen gogoeta egitea.

Leku handi eta zabal batean egitea komeni da. Sakabanaturik jartzeko eskatuko zaie ikasleei, elkar ukitu gabe edo elkarri enbarazurik ez egiteko eran. Begiak itxi eta nahi duten bezala mugi daitezela (dantzan hasteko) eskatuko zaie ikasleei, erritmo bizia hartu eta aske sentitzera animatuz. Musikaren soinua aurrera joan ahala, beren arteko tarteak txikituz joan daitezela eskatuko diegu (aurre aldera ibiliz, adibidez) edo begiak irekitzeko ere eskatu, elkarrengandik gertu, espazio txiki batean jarrita, dantzan hasi orduko enbarazu eginez jada.

Eska iezaiezu lehen bezala dantza egiteko. Orain, elkar joko dute eta, beharbada min egingo diote elkarri (nahiz eta, jakina, kontuz ibili beharko duten). Kantu bat edo gehiago (ariketa honetarako nahi den luzeraren arabera) bukatzen denean, denak biribilean eseri, guztiz libre sentitu direnean eta lagunek beren askatasuna mugatzen zutela ikustean nabaritu dutenaren inguruko gogoeta egin.



“Txori Debekatuak” - Eduardo Galeano -

“Gezurra badirudi ere, Uruguaiako diktadura militarren espetxerik nagusiena “Askatasuna” deitzen zen. Eta pentsaezina dirudien arren, “Askatasuna” deitzen zen. Espetxe horretan debekatuta zegoen presoek pinpilinpauxen, izarren, bikoteen eta txorien marrazkiak marraztea edota jasotzea.

Presoetariko bat Didaskó Pérez zen, eskolako maisua, eta espetxean zegoen, atxilotu zuenak esan zuen bezala, “ideia ideologikoak” izateagatik. Igande batean bere alaba Milayren bisita izan zuen. Alabak txorien marrazki bat eraman zion. Txoriak espetxean debekatuta zeudenez, zentsurak apurtu egin zion; zentsoreek espetxeko atean marrazkia apurtu egin zuten.

Hurrengo igandean Milayk zuhaitzen marrazki bat eraman zuen, zuhaitzak debekatuta ez zeudenez, marrazkia barrura sartu zen. Eta aitak galdetu zion: - Fruitu horiek, koloretako fruitu horiek, zer dira?, Laranja, limoiak, sagarrak?. Zer dira?. - Eta neskak isilarazi zuen. - Sssh, txotxolo, ez zara konturatzen begiak direla? Ezkutuan ekarri nizkizun txorien begiak.”

- Ezagutzen duzu idazki honen egilea? Nor izan zen?
- Zer iritzi duzu irakurritako testuari buruz?
- Zure ustez naturan badaude gauzak edo tresnak askatasuna adierazten dutenak?
- Zeintzuk?
- Ausartuko zinateke hau bezalako beste idazki bat egiten?

ZER DIRA EMOZIOAK?

Helburuak:

- Emozioak identifikatzea.
- Hainbat adierazpen mota aztertzea.


Irakasleak hurrei pelikulan zein emozio antzeman duten galdetuko die. Hauek dira atera daitezkeenak: Haserrea, tristura, beldurra, amorrua, poza, ilusioa, ...

Gero erabakitzen den material artistiko guztia mahai gainean jarrita, emozio horiek azalduko lituzketen hainbat "obra" egin ditzaten eskatuko zaie. Lana bukatzen den bakoitzean, galdetuko zaie:

- Zer nabaritzen duten hori gertatzen zaienean
- Zerk haserrarazten dituen (pozten, goibeltzen ...)
- Nola kanporatzen duten
- Kanporatzen dutenean zer esaten dieten inguruko persona helduek

Oinarrizko hiru emozioak:

Irakasleak arbelan oinarrizko hiru emozioak adierazten duten hiru aurpegi margoztuko ditu:



Denek ezagutuko dituzte emozio hauek, jarduera honen helburua ez da izango emozio berriak antzematea, baizik eta konturatzea inor ez dagoela beti umore berdinarekin. Bai gurasoek, lagunek, zein haiek ere umorez aldatzen garela etengabe. Bi helburu bereiz ditzakegu:

- Hiru oinarrizko emozio hauek bestean aurpegian eta ahots tonuan antzematea.
- Besteengana zuzentzerakoan, beraien egoera emozionala kontuan hartzea.

Honetarako talde osoa borobil handi batean eseriko da:

1. IKasleei galdetuko zaie zein emozio ikusten duten arbeleko hiru aurpegietako bakoitzean eta zergatik.
2. Eskatuko diegu hiru emozio hauek haien gurasoengan noiz ematen diren. Zelako emozio adierazten duten agindu bat ematen dietenean (Telebista itzali!, ohera!, afaltzera! ...)
3. Animatuko ditugu aurreko agindu bakoitza bi tonu desberdinetan adieraz ditzaten: tonu alaietan eta haserre.
4. Eskatuko diegu esan dezaten noiz izan den haserretu diren azken aldia eta zergatik. Ondoren, triste sentitu ziren azken aldia.
5. Papertxo batean haietariko batzuei ikusitako emozioetatik bat emango zaie, eta bestean aurrean antzezteko esango zaie. Besteok asmatu beharko dute zein emozio den bakoitza.

ZER DA KOMUNIKAZIOA?

Hitzik gabeko komunikazioa:

Helburuak:

- Komunikazioaren osagaiak ezagutzea (Hitzezkoak eta hitzik gabekoak)
- Hitzik gabeko hizkeraren komunikazio gaitasunaz gogoeta egitea.
- Emozioez hitz egiteko eta horiek izan ditzaketan esanahi ezberdinez jarduteko modua erraztea.

Hiru lagunek taldetan banatuko da gela eta bakoitzari paper bana (A, B edo C) ematen zaio. Ikasle bakoitzak, imintzio edo keinuen bidez, bere paperean azaltzen diren sentipenak edo sentimenduak adierazi beharko ditu. Taldeko beste bi lagunek persona horrek adierazitako sentimendu guztiak asmatzen dituztenean, hurrengoa hasiko da bereak adierazten.

Adierazi beharreko sentimenduak:

- A (A papera): haserrea, harridura, lotsa.
- B (B papera): maitasuna, tristura, beldurra.
- C (C papera): poza, amorrua, urduritasuna.

Amaieran, talde handian bakoitzak bere Iritzia bota ahal izango du: Zelan sentitu den, gustura ibili den ala ez, zergatik,



Elkarrekin komunikatzeko jolasa:

Zenbait gairi buruzko adostasun eta desadostasun puntuak zein diren jakiteko jolasa da hau.

Helburuak:

- Taldeko partaide guztiek zer iritzi duten jakitea.
- Besteen jarrerak errespetatzen ikastea.
- Komunikazioa eta elkarrizketa sustatzea.

Gai jakin bat aukeratuko dute: Maite duzunengandik urrun ala hurbil bitzearen alde onak eta txarrak izan daiteke gai bat, bakardadean bizi, ...(gai hau etorkinen edota errefuxiatuen gaiarekin lotu daiteke ere)



Parte hartzaile bakoitzak bere ideiak idatziko ditu txartel batean. Ondoren, bateratze lana egingo dute: arbelean idatzi beharko dute zertan dauden ados eta zertan ez datozen bat. Ondoren eztabaidari ekingo diote.

Batek edo gutxi batzuek eztabaida ez monopolizatzeke, eta denek parte har dezten, hiru zotz eman dakioket persona bakoitzari, eztabaida hasi aurretik. Norbaitek hitz egin nahi duenean, zotz bat utzi beharko du erdian, eta amaitzen bazaizkio, ezin izango du hitz egin.

Irakasleak bideratu beharko du eztabaida iritzien arteko aldeak zertan oinarritzen diren laburbilduz, adostasunik ez dagoenean zer egin daitekeen aipatuz, bestean iritzia errespetaraziz...

ArBasoak:

Heburuak:


- Balaunaldien arteko historiak errepikatu egiten direla ulertzea, eta aitona eta amonak eta haurrak izan zirela ohartzea; eta aitona-amonek ere aldi berean beren aitona eta amonak izan zituztela.
- Aitona-amonekin komunikazioa eta oro har, harremanak, hobetu eta zaintzea.

Gelako ikasle guztiei marrazteko materiala eman eta familiako norbaitengan pentsa dezatela eskatuko zaie (aitona-amona edo norberarentzat garrantzizkoa edo berezia den beste pertsona adineko bat). Pertsona hori marraztu beharko dute eta gero adierazi zergatik gustatzen zaien berarekin egotea.

Etxean, ikasleak marrazki hori aitonari edo amonari erakutsiko dio, (edota berarentzat garrantzizkoa edo berezia izan daitekeen adineko beste pertsona hori), eta ondoren aitona edo amonari beraien arbasoei (umearen biraitona-amona) buruzko marrazki bat egin dezaten eskatuko diegu. Marrazkiarekin batera nolakoak ziren kontatzeko eskatuko diegu, eta ahal bada, beraiekiko bi oroitzen on.

Gero, ikasle guztiek haien marrazkiak erakutsiko dituzte ikasgelan eta beraien nagusiek kontatutakoaren berri emango digute.


- * Ikasle batzuen aitona-amonak gonbidatu ditzakegu gelara kontutxoren bat kontatzeko ere.



EKINBIDE ARTISTIKOAK

MIMOA:

- Musika sekuentzia bat hartuz (melodia ezberdinekin) istorio bat osatu sentimenduak adierazteko mimoaren bidez.
- Bikoteka jarrita: Irudikatu behar dugu pertsona bakoitza kutxa batean sartuta dagoela. Bien artean horma bat dago, eta ezin dute elkar ukitu. Bilatu behar dute formula bat kutxen arteko hormak apurtzeko eta elkar besarkatzeko.



SKETXAK:

- Taldeka ipinita gatazka bat aukeratu (etxekoa, ikastetxekoa, gizartekoa...). Aztertu gatazka hori, dramatizatu eta azkenean irtenbide eszeniko bat bilatu.

IRRATSAIOA:

- Ikasgela taldetan banatuko dugu irratsaioaren zati ezberdinak prestatzeko:
 - * Hasiera, bitarteko eta amaierako musika.
 - * Istorio txiki bat prestatu ondoren eztabaida bat antolatzeko (gaia eskubide, gatazka edota gizartean dagoen arazo bati buruz izan daiteke).
 - * Iragarkiak.
 - * Elkarrizketa pertsona batekin edo birekin.



BERTSOLARITZA:

- Bila itsazue askatasun edo eskubideei buruzko bertsoak (nork idatzi zituen, noiz, zer adierazi nahi duten...)
- Egin ditzagun gure bertsoak: Aukeratu gai bat edo egoera bat eskubide batzuk errebindikatzeko eta egizu bertsoa, neurria eta soinua aukeratuz. Azkenik, batu itzazue bertso guztiak eta egin ezazue liburu bat.

MARGOGINTZA:

- Aipa ezazue gatazka, emozioak edota askatasun eza adierazten duten margoak eta margolariak.
- Egin ezazu marrazki bat gatazka bat salatuz edota eskubide bat alderrikatuz.



IPUINGINTZA:

- Bilatu munduko ipuinen artean gatazka ezberdinak aipatzen dituzten ipuinak. Ondoren ipuinetan agertzen diren pertsonai ezberdinen jarrerak komentatu eta emandako irtenbidea.
- Asmatu ipuin bat. Bertan arazo edo gatazka bat agertu beharko da. (Oso garrantzitsua da pertsonaien sentimenduak azalaraztea, irtenbidea bilatzea...)

MUSIKA:

- Bila itzazue askatasuna, eskubideak... adierazten dituzten abestiak. Komentatu norenak diren, noiz egin ziren, zein testuingurutan... Amaitzeko prestatu koreografia abesti horietariko batekin.



LANKIDETZAN ARITZEKO JOLASAK

Joko tradizional honen helburua:

- Lankidetzaren garatzea eta, gero eta jende gehiagok lan bera egiteko laguntzaren ekarpenaz jabetzea.

Jolas hau espazio zabal batean egin beharko da.

Petsona bat (lehen kate maila) besteen atzetik joango da, haiek harrapatu nahian. Beste bat ukitzen duenean, persona hori katean sartuko da, eta biak eskutik helduta, besteak harrapatzen saiatuko dira. Parte hartzaile guztiak harrapatu beharko dituzte.

Amaieran borobil handi batean eserita bakarka egiten den lanaren eta taldean egiten denaren alde onei eta alde txarrei buruz eztabaida dezakete. Talde lanak zernolako ekarpenak egin ditzakeen azter daiteke.



Gynkana:

- Sei- zazpi ikasleko taldeak.
- Haietariko batek zigortuta (preso) hasiko du jokua (16 urtetik gorako ikasleekin ikasle berdinak zigortuta hasi eta amaituko du jokua. Txikiagoek proba bakoitzaren amaieran aldatuko dute zigortuaren papera). Hau zozketaz erabakiko da eta jolastokitik ahalik eta urrunen kokatuko da. Jolasaldi osoan ezin izango da lekutik mugitu.



- Beste bost-sei partaidek lau proba bete beharko dituzte, bata bestearen atzetik, baina proba bakoitza burututakoan, autobusa hartu (zinta errodantea) eta zigortuta dagoen partaidea bisitatu beharko dute, bera besarkatu eta buelta hurrengo probekin jarraitzeko. Azken proba amaituta, zigortuta dagoenaren bila joan, hau besoetan hartu eta amaierako puntura (aurretik zehaztu beharko da) heldu beharko da talde osoa (sei- zazpi partaideak)

- Proba guztiak bete ondoren puntu gehien lortu dituen taldea izango da irabazlea. Puntuazioa horrelakoa izan daiteke: Proba bakoitzean lehenari 4 puntu eman, 2. ari 3 puntu, 3. ari 2 puntu eta azkenari puntu bakarra. Amaieran puntuazio guztiak batuko dira eta irabazlea zehaztuko da
- Amaieran, partaide bakoitzak proba bakoitzaren tarte bakoitzean sentitu duena besteekin partekatu beharko du talde handian. (Amaierako saio hau hurrengo egun batean egin daiteke, luzeegi ez egiteko)
- Sentimenduen zerrenda bat idatziko da kartel handi batean eta gelan edo pasilloan eskegi (Gynkana egin duten gela guztiek ikusi ahal izateko)

• PROBAK:

Palangana Bete:

Ur-edalontzi bat kopetan izanda, urez bete eta erreleboka 20 bat metrora kokatuta dagoen palangana betetzen saiatu. Palangana osoa bete arte itxaron daiteke edo denbora bat emanda, gehien bete duena irabazle suertatuz.



Ping-pong Pilota pasa:

Talde bakoitzeko 5 edalontzi eta ping-pong pilota bat. Edalontzi txikiago bat erabiliz besteak urez bete erreleboka, eta pilota goian dagoenean, putz egin beharko da hurrengo edalontzira jausi arte. Amaitzeko, pilota azken edalontziraino heldu beharko da.



Gurpilak pasatu:

Talde osoko partaideak orkatiletatik lotuta daudela, 5 gurpiletatik pasatu beharko dira alboz joanda. Azken partaidea gurpiletatik atera arte ez da amaitutzat emango.



Zapatilen jolasa:

Partaide guztiek (Talde guztietako partaideek) borobil handi bat osatuko dute eta bakoitzak bere zapatilak utziko ditu borobilaren erdian nahastuta, korapilo bat eginda. Txistua jota partaide bakoitzak bere zapatilak aurkitu, jantzi, lotu eta bere leku berdinerara bueltatu beharko da. Lehenago elkartuko den taldea irabazlea izango da.

Jokoa bera aldaera bakarrarekin: Probatxo bakoitza amaitu ondoren taldekide guztiak badoaz laguna besarkatzera eta partaide berri bat da geratzen dena bakarrik. Horrela denek parte hartuko dute eta bakarrik geratzen denarentzat ere jasangarriagoa izango da denbora laburragoan besteongandik aparte egotea.

Zine-foruma:

Motxilaren umea filma ikusi ondoren (zuzendariaren hitzalditxoa sar daiteke hemen: Gidoia, arlo teknikoen nondik norakoak, aurkitu dituzten zailtasunak, ...- Ikasleen galderak,...) ikasleen arteko eztabaida sortu daiteke gero (Beste saio batean izan daiteke):

- Gaia bera: Aurre ezagupena: aurretik ezagutzen zuten gaia? Nori entzunda?
- Gaiaren trataera: Egokia, ez, norbaiten alde? Kontra?
- sakabanaketa zer den, zergatik ematen den, ...
- Umearen ama "Euskal Herria maitatzeagatik dago kartzelan" Zer da hori? Nola ulertu dezakegu baieztapen hori? Denok ados? Zergatik?



Irakasleak moderatzailearen papera hartuko du, guztion parte hartzea sustatuz eta guztion iritziak errespetatzen eta onartzen direla egiaztatuz.

“ETORRI ETXERA” aBestiaren letra:

Gure amaren hurbiltasuna
sentitu gurean gaude
une gogorak, egun luzeak
pasatuta omen daude;
gugandik urrun igaro duzu
hainbat oinaze ta urte
maitasun eza nabaria da
gurekin zu ez bazaude.

Etorri etxera,
elkar gaitezen gaur
adiskide oro
batuko baikara
suaren ondoan,
suaren ondoan...

Hainbat herritan ume guztiak
hasi dira pozez dantzan,
espexetikan irten da ama
jadanik dago abian,
seme-alaben alaitasuna
igartzen da aurpegian
zirt-zart batean, di-da batean
izango da gure artean.



Bibliografia:

- “Relacionarnos bien: Programas de Competencia Social para niñas y niños de 4 a 12 años”. Manuel Segura/Margarita Arcas (NARCEA).
- “Ser persona y relacionarse: Habilidades cognitivas y sociales, y crecimiento moral”. Manuel Segura Morales (NARCEA)
- “Jolasaren alernatiba 2: Bakerako Hezkuntzako jolasak eta dinamikak”. Paco Cascón (CATARATA).
- “Unitate didaktikoa elkargunea”. Gizagune Fundazioa (Bilboko Udala: Kultura eta Hezkuntza Saila).
- “Erronka”. EHIko Aisialdi Taldea (EHIE).

Informazioa:

Kurkuluxetan elkarte

Done Bikendi 2-4 solairua - mob 662.47.27.46

www.kurkuluxetan.eus - umegunea@gmail.com

